

“AZKUE BIBLIOTEKA”-K ERATUTAKO ERAKUSKETAK

J. A. Arana Martija

1987

A. Pozaren mendeurrena zela eta, “Azkue Biblioteka”-k Kartografia Erakusketak antolatu zituen toki eta egun hauetan:


Urduña	Irailak 23/Irailak 29
Gernika	Urriak 2/Urriak 5
Leitza	Urriak 23/Urriak 28
Zarautz	Azaroak 24/Abenduak 8
Iruñea	Abenduak 10/Abenduak 20

1988

Erakutsitako mapa, plano eta abarrek lortu zuten arrakasta handia izan zen eta beste toki batzuetatik ere Erakusketa antolatzeke eskaria heldu zen. Euskaltzaindiak bere bilera batetan beste bi kartografia erakusketa egitea onartu zuen. Lehena Portugaleten, Elai Alai Dantza Taldearen babespean eratua izan zen Martxoaren 28tik Apirilaren 11ra. Bigarrena Gipuzkoako Erreterian Irailaren 5etik 30era Xepelar Udal Erakusketa Aretoan.

Barcelonako Biblioteca General de Catalunya-ko areto batetan, Otsailaren 29tik Martxoaren 5a arte Catalunyan argitara emandako euskal liburuen erakusketa bat antolatu zen, Circulo Vasco delakoak eraturako jardunaldi batzuren barnean. Erakusketa honetarako katalogo bat argitaratu zen.

Gernikako Euskal Jaien Mendeurrena zelata, eta Gernikako Kultur Etxean, Irailaren 28tik Urriaren 10era, 1880-1900 bitartean argitaraturiko euskal liburuen



erakusketa bat antolatu zen. Erakusketa honetarako ere katalogo bat eta kartela atera ziren.

Durangoko Liburu eta Diskoen Azoka inguruan, Udalaren Erakusketa Aretoan, Azaroaren 8tik Abenduaren 11ra arte, Azkuek **Euskalerrriaren Yakintza** eta **Latsibi** elaberria ilustratzeko erabili zituen grabau, irudi eta abarren originalekin erakusketa bat antolatu zen Durangoko Arte eta Historia Musekoekin batera.